



ESTADISTIKA
ORGANOA

ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2019ko 1. hiruhilekoa

Emitza nagusiak

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
Estatistika Organo Berezia*



1.- OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Obra handiko lizentzia gehiago eman dira Gipuzkoan, aurreko hiruhilekoan baino; Bizkaian ere gora egin dute baina gutxiago. 2018ko hiruhileko berberarekin alderatuta, berriz, aurten lizentzia gehiago eman dira Gipuzkoan eta Araban.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera (EEEE), 2019ko lehen hiruhilekoan obra handiko 846 lizentzia eman zituzten guztira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek. Emaitza horiek 2018ko laugarren hiruhilekoan erregistratutakoak baino handixeagoak dira. Izan ere, 32 lizentzia gehiago eman ziren, eta horrek esan nahi du, datu erlatiboak hartuta, % 6,0ko igoera izan dela. Aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatuta, jarduerak gora egin du: 47 lizentzia gehiago onartu dira; beraz, % 5,9ko hazkundera izan da.

Bizkaian eman dira hiruhilekoko obra handiko lizentzien % 52,6; guztira, 445. Haren atzetik, Araba. Lurralde horretan 210 lizentzia eman dira; hau da, lizentzia guztien % 24,8. Gainerako 191 lizentziak, guztien % 22,6, Gipuzkoan eman dira.

EAEko lurralde historikoen artean, Gipuzkoan izan da obra handiko lizentzien aldaketa gehien 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko lehenengoaren artean. Lurralde horretan, kontuan hartutako lizentzien kopuruak % 21,7 egin du gora erreferentzia-aldian (34 lizentzia gehiago). Araban, aldiz, beherakada izan da: aurreko hiruhilekoan baino 8 lizentzia gutxiago eman dira, hau da, % 3,7ko beherakada. Bizkaian, aldiz, emandako lizentzien kopuruak gora egin du pixka bat 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko lehenengoaren artean, 6 lizentzia gehiago eman baitira (% 1,4ko igoera).

Urte arteko emaitzak positiboak izan dira lurralde historiko guztietan, Bizkaian izan ezik. Arabako Lurralde Historikoan 51 lizentziako igoera absolutua izan da 2018ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 32,1eko gorakada erlatiboa. Gipuzkoan, urtearteko igoaldia 15 lizentziakoa izan da, eta epealdiko gorakada erlatiboa, aldiz, % 8,5. Bizkaian, aldiz, beherakada ari bat antzeman da emandako lizentzien kopuruan; izan ere, 2018ko lehenengo hiruhilekoan obra handiko 464 lizentzia eman ziren, hiruhileko honetan baino 19 gehiago (445 lizentzia, % 4,1eko jaitsiera).

Birgaitzeko obrei lotutako lizentziek nagusi izaten jarraitzen dute

2019ko lehenengo hiruhilekoan, **emandako lizentzia moten** araberako banaketan, aurreko hiruhilekoetako joera berberari eutsi zaio. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehaztasunez, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 83 izan dira (2018ko laugarren hiruhilekoko % 84,6ren eta 2018ko hirugarren hiruhilekoko % 83,9ren azpitik, baina 2018ko bigarren hiruhilekoko % 82,9tik gora); oin berriko eraikinetarako % 14,1 izan dira (2018ko laugarren hiruhilekoko % 13,1etik eta hirugarren hiruhilekoko % 13,8tik behera) eta



eraiispenetarako, berriz, % 3. Kopuru absolutuak honako hauek dira: 702 birgaitze-lizentzia (2018ko laugarren hiruhilekoan baino 13 gehiago, % 1,9ko igoerarekin), 119 oin berrikoak (12 lizentzia gehiago, % 11,2ko igoerarekin) eta 25 eraiispen-lizentzia, aurreko hiruhilekoko kopurua baino zazpi gehiago.

2019ko lehen hiruhilekoan, oin berriko lizentziek eta birgaitzekoek emandako lizentzien kopuru osoan egiten duten zatia modu ezberdinean banatzen da, aztertutako lurralde historikoaren arabera. Gipuzkoan, oin berriak pisu erlatibo handixeagoa du: emandako obra handiko lizentzia guztien % 19,4 eman dira, eta Araban eta Bizkaian, berriz, % 13,8 eta % 11,9, hurrenez hurren. Horrek kontrako efektua dauka birgaitzeko obra handiko lizentzietan, eraiispenek ere ez dutelako eragin bera izan batean zein bestean: Bizkaian, birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 86,5 dira; Araban, aldiz, portortzio hori % 82,4 da, eta Gipuzkoan, % 75,4.

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 1. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portortentaje bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portortentajeakoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2019ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	846	100,0	32	3,9	47	5,9
	Oin berria	119	14,1	12	11,2	2	1,7
	Birgaitzea	702	83,0	13	1,9	38	5,7
	Eraistea	25	3,0	7	38,9	7	38,9
Araba	Guztira	210	100,0	-8	-3,7	51	32,1
	Oin berria	29	13,8	-4	-12,1	2	7,4
	Birgaitzea	173	82,4	-3	-1,7	44	34,1
	Eraistea	8	3,8	-1	-11,1	5	166,7
Bizkaia	Guztira	445	100,0	6	1,4	-19	-4,1
	Oin berria	53	11,9	10	23,3	-3	-5,4
	Birgaitzea	385	86,5	-6	-1,5	-15	-3,8
	Eraistea	7	1,6	2	40,0	-1	-12,5
Gipuzkoa	Guztira	191	100,0	34	21,7	15	8,5
	Oin berria	37	19,4	6	19,4	3	8,8
	Birgaitzea	144	75,4	22	18,0	9	6,7
	Eraistea	10	5,2	6	150,0	3	42,9

Iurria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitza buruzko Estatistika. 2019ko 1. hiruhilekoa

2018ko laugarren hiruhilekotik 2019ko lehenengo hiruhilekora arteko aldian, Bizkaian gora egin du oin berriko lizentzien kopuruak (+% 23,3), baina behera egin du birgaitzeko obrenak (-% 28,2). Gipuzkoan ere gora egin dute, bai birgaitzeko lizentziek



(+% 18), bai eraikuntza berrikoek (+% 19,4). Araban, ordea, behera, bai oin berriko lizentzien kopuruak, nabarmen samar (-% 12,1), bai birgaitzeko obrarenak, gutxixeago bada ere (-% 1,7).

Urte arteko bilakaeran, Bizkaiak izan du bilakaerarik txarrena oin berriko lizentzietan, mota horretako lizentzia gutxiago eman baititu (-% 5,4). Gipuzkoan eta Araban, berriz, gora egin duela ikusten da, % 8,8 eta % 7,4, hurrenez hurren. EAE osoa aintzat hartuta, urte arteko aldakuntza positiboa ikusten da obra berriko lizentzietan; hala, 2018ko lehenengo hiruhilekoarekin alderatuta, % 1,7ko aldakuntza erregistratu da, obra handiko 2 lizentzia gehiago eman baitira.

Birgaitze-lizentziak oin berrikoak baino gehiago hazi dira EAEn 2018ko lehen hiruhilekoa eta 2019ko epe berbera alderatuta (% 5,7 birgaitzeko lizentziak eta % 1,7 oin berrikoak). Igoera hori Araban gertatutako gorakadarekin dago lotuta (+% 34,1), EAEko batezbestekoa baino handiagoa izan baita, bai eta Gipuzkoan neurri apalagoan izandakoarekin ere (% 6,7). Bizkaia, ordea, tankera horretako lizentzia gutxien eman diren lurraldea izan da (-% 3,8).

Metatutako urte arteko datuek erakusten dutenez, igoera egon da EAEn 2019ko lehenengo hiruhilekoan emandako lizentzien kopuruan.

Urteko datu metatu horiek 2018ko bigarren hiruhilekoaren eta 2019ko lehengoaren artean emandako lizentzia guztiak kontabilizatzen dituzte; konparatuz gero aurreko urteko hiruhileko berdinen (2017ko bigarren hiruhilekotik 2017ko 2018ko lehenengo hiruhilekora) urteko metatuarekin, ikusten da 228 lizentzia gehiago eman direla; hau da, aurreko epealdi konparagarrian baino % 7,2 gehiago. Igoera txikiagoa da oin berriko lizentzien kasuan, EAEn % 1,5 gehitu baitira (7 lizentzia gehiago); birgaitzekoen kasuan, aldiz, +% 7,9 (207 lizentzia gehiago). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien kopuruak ere gora egin du, % 20,3; hots, 14 lizentzia gehiago eman dira.

Oin berriko obrei nahiz birgaitze-obrei dagokienez, hiru lurralde historikoetan 2019ko lehenengo hiruhilekoko metatutako datuen bilakaerak dinamika positiboa adierazten du, salbu eta Gipuzkoan oin berrikoiei dagokienez.

Urte arteko datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta, agerian geratzen da EAEn dinamika ezberdinak daudela.

Gipuzkoak gorakada nabarmena izan du azken urtean metatutako lizentzia kopuruan, aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta (+% 16,3 egin du gora, 105 lizentzia gehiago eman baitira). Arrazoi nagusia da Gipuzkoan beste lurralde historikoetan baino gehiago hazi dela birgaitzea (+% 22). Ostera, oin berriko obra-lizentziei dagokienez, beherakada izan duen lurralde historiko bakarra izan da: -% 8,7; 12 lizentzia gutxiago.



2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua, 2. hiruhil. 2018 1. hiruhil. 2019		Metatua, 2. hiruhil. 2017 1. hiruhil. 2018		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	3.376	100,0	3.148	100,0	228	7,2
	Oin berria	477	14,1	470	14,9	7	1,5
	Birgaitzea	2.816	83,4	2.609	82,9	207	7,9
	Eraistea	83	2,5	69	2,2	14	20,3
Araba	Guztira	871	100,0	762	100,0	109	14,3
	Oin berria	138	15,8	131	17,2	7	5,3
	Birgaitzea	708	81,3	617	81,0	91	14,7
	Eraistea	25	2,9	14	1,8	11	78,6
Bizkaia	Guztira	1.754	100,0	1.740	100,0	14	0,8
	Oin berria	213	12,1	201	11,6	12	6,0
	Birgaitzea	1.515	86,4	1.506	86,6	9	0,6
	Eraistea	26	1,5	33	1,9	-7	-21,2
Gipuzkoa	Guztira	751	100,0	646	100,0	105	16,3
	Oin berria	126	16,8	138	21,4	-12	-8,7
	Birgaitzea	593	79,0	486	75,2	107	22,0
	Eraistea	32	4,3	22	3,4	10	45,5


Iurria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 1. hiruhilekoa

Arabara, 109 lizentziako gorakadak urte arteko gorakada metatua ekarri du, % 14,3ko gorakada, alegia, obra-lizentzien guztizko kopuruan, baina lurralde horretan diferentzia txikiak ikusten dira emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran, motaren arabera. Oin berriko lizentziak, urte arteko datuak hartuta, % 5,3 soilik igo dira; birgaitzeko lizentzien kopurua, berriz, neurri handiagoan igo da (+% 14,7), mota horretako 91 lizentzia eman baitira.

Bizkaian, bestalde, berreskuratu egin dira emandako lizentzien kopurua (% 0,8). Birgaitzeko lizentziak ia egonkor mantendu dira urte arteko datuetan: % 0,6 (9 lizentzia gehiago), eta oin berriko lizentzien igoera handiagoa izan da, +% 6 (12 lizentzia gehiago eman dira).



1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2019.



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitza buruzko Estatistika. 2019ko 1. hiruhilekoa

2.- EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN

2019ko lehen hiruhilekoan onera egin du bizitegirako diren obra handiko lizentzien kopuruak, baina ez bizitegitarako ez direnenak, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta.

2019ko lehen hiruhilekoan, obra handiko 821 lizentzia eman dira, oin berriko eraikinak jasotzeko edo eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (648, guztien % 78,9) **bizitegi-erabilerako** proiektuei lotu zitzaizkien, eta gainerako 173ak, guztien % 21,1, bizitegitarako ez diren erabilerarako proiektuei.¹

2019ko lehen hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez** diren obra-lizentziak dagokien sektorearen arabera aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektoreko erabilerarako direnak

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik bazter geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat tramitatu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla (bizitegitarakoak eta bizitegitarakoak ez direnak).



nabarmendu direla (lizentzia guztien % 55,5). Industriaren eta energiaren sektorerara beste % 27,7 bideratu zen, eta gainerako % 16,8a, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

Lizentzien **hiruhilekoko bilakaerari** dagokionez, 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko lehenengoaren artean, ikusten da bizitegi-erabilerako proiektuekin lotutakoek gora egin dutela (+% 5,2), eta behera bizitegi-erabilerakoak ez diren lizentziek (-% 3,9).

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziek 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko lehenengo hiruhilekoaren artean izan duten beherakadak (-% 3,9), **zerbitzu-sektorearekin** izan du lotura batez ere (-% 13,5); eta, neurri txikiagoan, **industria- eta energia-sektorearekin** (-% 7,7). **Lehen sektoreari** dagokionez, berriz, % 70,6ko igoera izan da.

2018ko lehen hiruhilekoaren eta 2019koaren arteko urteko konparazioak datu positiboak ematen ditu bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (% 7,8), baina negatiboak, aldiz, bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez (-% 3,9).

3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2019ko 1. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2019ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	821	100,0	25	3,1	40	5,1
Bizitegia	648	78,9	32	5,2	47	7,8
Bizitegirako ez direnak	173	21,1	-7	-3,9	-7	-3,9
-Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	29	16,8	12	70,6	5	20,8
-Industria eta energia	48	27,7	-4	-7,7	-9	-15,8
-Zerbitzuak	96	55,5	-15	-13,5	-3	-3,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 1. hiruhilekoa

2018ko eta 2019ko lehen hiruhilekoen artean bizitegitarako ez diren lizentziak ematearen barne-dinamikari dagokionez, atzerakadak erregistratu dira jarduera-sektore guztietan, lehen sektorean izan ezik. Jaitsierarik handiena industriaren eta energiaren sektoreak izan du (-% 15,8); intentsitate txikiagoarekin zerbitzu-sektoreak (-% 3). Lehen sektorean, berriz, % 20,8ko gorakada izan da.

Urtearteko kopuru metatuetan, gora egin dute bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien kopuruak eta bizitegi-erabilerakoak, nahiz eta atzera egin den industriaren eta energiaren sektorean.



Metatutako urte arteko adierazleen aurreikuspenak positiboak dira bi tipologietan, baina intentsitate desberdinarekin. Hartara, 2018ko lehen hiruhilekora arteko urtearteko kopuru metatuak alderatzen baditugu (2017ko bigarren hiruhilekotik 2018ko lehenengora artekoak), 2019ko hiruhileko berari dagozkionekin (2018ko bigarren hiruhilekotik 2019ko lehenengora artekoak), ikusten dugu bizitegi-erabilerarako emandako lizentzietan gorakada bat izan dela (+%8,8) eta bizitegi-erabilerarako ez direnak ere ugartu egin direla –nahiz eta intentsitate txikiagoarekin hazi (+% 1,2)–.

4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2019ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua, 2. hiruhil. 2018 1. hiruhil. 2019		Metatua, 2. hiruhil. 2017 1. hiruhil. 2018		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
Guztira	3.293	100,0	3.079	100,0	214	7,0
Bizitegia	2.538	77,1	2.333	75,8	205	8,8
Bizitegirako ez direnak	755	22,9	746	24,2	9	1,2
-Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	91	12,1	75	10,1	16	21,3
-Industria eta energia	201	26,6	226	30,3	-25	-11,1
-Zerbitzuak	463	61,3	445	59,7	18	4,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 1. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2019ko lehen hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dutenez, hobekuntza bat gertatu da jarduera-sektore guztietan lizentzien kopuruaren bilakaeran, industrian eta energiarenean izan ezik (-% 11,1). Gorakadarik handiena lehen sektorean gertatu da (+% 21,3); zerbitzuenean, berriz, txikixeagoa izan da (+% 4).

3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

Etxebizitzak eraikitze aurreikuspenak hobera egin du aurreko hiruhilekoaren aldean eta iazko hiruhileko beraren aldean

2019ko lehen hiruhilekoan emandako bizitegi-erabilerarako obra handiko 648 lizentziek berekin dakartzate 2.083 etxebizitzarekin zerikusia duten jarduketak (aurreko hiruhilekoan baino 369 gehiago). Etxebizitza horietatik, 1.727 oin berriko jarduketei



lotzen zaizkie (lizentzia guztien %82,9); gainerako 356 jarduketak birgaitzeko prozesuan dauden etxebizitzak dira.²

Zehaztu behar da hemen sartzen diren oin berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ahal dituela hiruhilekoan, hiruhileko batetik bestera onartzen diren tamaina handiko sustapenen kopuruaren arabera. Alderdi hori gogoan izanik, gorakada bat detektatu da 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko lehenengoaren artean EAEn aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren kopuruan (+% 31,9). 2018ko lehen hiruhilekoko kopurua 2019ko hiruhileko berdineko kopuruarekin konparatzen bada, ikusten da egoerak nabarmen egin duela onera oin berriko etxebizitzaren aurreikuspenean (+% 168,6).

Bestalde, hobekuntza ikusten da 2019ko lehen hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusten diren etxebizitzaren kopuruan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 35,9), eta are hobekuntza handiagoa 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 58,2).

2019ko lehen hiruhilekoan, **Bizkaia** da aurreikusitako jarduketa gehien dituen lurraldea, eta, guztira, 1.158 etxebizitza daude jarduketa horiei lotuta; haietako % 86,6, oin berrikoak dira (1.003 etxebizitza). Lurralde horretan gora egin du oin berriko etxebizitzaren kopuruak, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+ % 3,4) bai 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 288,8). Birgaitu beharreko etxebizitzaren kopuruari dagokionez, horien kopuruak ere gora egin du 2018ko laugarren hiruhilekoari dagokionez (+% 10,7) bai eta 2018ko lehenen hiruhilekoari dagokionez ere (+% 44,9).

Gipuzkoan, berriz, 719 etxebizitzatarako jarduketak aurreikusi dira 2019ko lehenengo hiruhilekoan. Oin berriko 593 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta perspektiba positiboa dago aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 116,4), bai eta 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 135,3). Birgaitzeko jarduerari dagokionez, gauza bera gertatu da: gora egin du birgaitzeko diren etxebizitzaren kopuruak, 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta oraingoaren artean garatutako jarduerari dagokionez (+% 68), eta gauza bera aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 117,3).

Araban, azkenik, 206 etxebizitzatarako jarduketak erregistratu dira. Jaitsiera ikusten da 2018ko laugarren hiruhilekoaren eta 2019ko lehenengoaren artean aurreikusitako etxebizitza kopuruari dagokionez (-% 19,2), eta horrek zerikusia dauka azken hiruhilekoan oin berriko jarduketetarako izan den jaitsierarekin (-% 37); urtearteko bilakaerari dagokionez ere atzerakada arin bat ikusten da (-% 1,5). Beste alde batetik, birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruak gora egin du 2018ko laugarren

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaktan ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiagoko etxebizitza-eraikinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obrak egiten diren. Ukitutako etxebizitza birgaituen kontaktan, honako esku-hartze hauek hartzen dira kontuan soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, kontuan hartzen da garatutako bereizte edo bat-egite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza kopurua).



hiruhilekoarekin alderatuta (% 59,6) eta gauza bera, gutxixeago bada ere, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (% 25).

5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 1. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portzentaje bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajekoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2019ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berdinarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	2.083	100,0	369	21,5	1215	140,0
	Oin berria	1.727	82,9	275	18,9	1084	168,6
	Birgaitzea	356	17,1	94	35,9	131	58,2
Araba	Guztira	206	100,0	-49	-19,2	13	6,7
	Oin berria	131	63,6	-77	-37,0	-2	-1,5
	Birgaitzea	75	36,4	28	59,6	15	25,0
Bizkaia	Guztira	1.158	100,0	48	4,3	793	217,3
	Oin berria	1.003	86,6	33	3,4	745	288,8
	Birgaitzea	155	13,4	15	10,7	48	44,9
Gipuzkoa	Guztira	719	100,0	370	106,0	409	131,9
	Oin berria	593	82,5	319	116,4	341	135,3
	Birgaitzea	126	17,5	51	68,0	68	117,2

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 1. hiruhilekoa

Urtearteko kopuru metatuak aztertuta, ikusten da: birgaitzeari dagokionez, hobera egin da EAEko hiru lurraldeetan, eta, oin berriko etxebizitzari dagokienez, soilik Araban egin da atzera.

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhilekoan izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, emaitzen **urteko dinamika metatua** aztertzea komeni da. Analisi horren arabera, 2019ko lehen hiruhilekora arte metatutako bizitegi-erabilerarako urteko jardueraren arabera, aurreikusita dauden jarduketek 6.797 etxebizitzari eragiten diote guztira. Horrek esan nahi du % 37,4ko gorakada egon dela (1.851 etxebizitza gehiago), 2018ko lehen hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Gorakada hori batez ere birgaitze-jarduketekin lotzen da, ukitutako etxebizitzaren kopurua % 40,1 handitu baita (362 etxebizitza gehiago), eta oin berriko jarduketak, berriz, % 36,8. Etxebizitza mota horretan 2018ko lehen hiruhilekoaren metatutako jarduketetan sartutako 4.044 etxebizitzetatik 5.533 etxebizitzetara pasatu da 2019ko aldi bererako.



6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua, 2. hiruhil. 2018 1. hiruhil. 2019		Metatua, 2. hiruhil. 2017 1. hiruhil. 2018		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	6.797	100,0	4.946	100,0	1.851	37,4
	Oin berria	5.533	81,4	4.044	81,8	1.489	36,8
	Birgaitzea	1.264	18,6	902	18,2	362	40,1
Araba	Guztira	780	100,0	843	100,0	-63	-7,5
	Oin berria	537	68,8	628	74,5	-91	-14,5
	Birgaitzea	243	31,2	215	25,5	28	13,0
Bizkaia	Guztira	4.027	100,0	2.412	100,0	1.615	67,0
	Oin berria	3.419	84,9	1.966	81,5	1.453	73,9
	Birgaitzea	608	15,1	446	18,5	162	36,3
Gipuzkoa	Guztira	1.990	100,0	1.691	100,0	299	17,7
	Oin berria	1.577	79,2	1.450	85,7	127	8,8
	Birgaitzea	413	20,8	241	14,3	172	71,4

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 1. hiruhilekoa

Dinamika orokorra, hala ere, lurralde bakoitzeko portaera desberdinek baldintzatzen dute. Ildo horretan, hiru lurralde historikoek izan dute bilakaera positiboa birgaitzearen arloan. Gipuzkoan, urteko kopuru metatuak gora egin du 2018ko lehen hiruhilekoaren eta 2019koaren artean (+% 71,4), eta Bizkaian eta Araban, berriz, igoera apalagoa izan da (+% 36,3 eta +% 13, hurrenez hurren).

Lurraldeen arteko desberdintasunak nabarmenagoak dira etxebizitza berrietarako aurreikusitako jarduketei dagokienez. Kasu horretan, ikusten da Bizkaian jarduera nabarmen hobetu dela (+% 73,9). Gipuzkoa hobekuntza apalagoa da 8,8ko hazkunderan izan baitu. Araban, aldiz, % 14,5eko beherakada izan da 2019ko lehen hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatuan, 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (91 etxebizitza gutxiago).



ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak.

Obra handiko lizentzia. Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

a. Oin berriko obra. Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

b. Birgaitze-obra. Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraispin partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziatzat hartuko dira.

Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren



ganean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.

- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzan edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obra.

c. Eraispin-obra. Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2019ko 1. hiruhilekoa

EMAITZA NAGUSIAK

AURKIBIDEA

1.- OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2.- EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN.....	6
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	8
ALDERDI METODOLOGIKOAK	12

Taulen aurkibidea

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 1. hiruhilekoa	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2019ko 1. hiruhilekoa	7
4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2019ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	8
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 1. hiruhilekoa	10
6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 1. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	11

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2019.....	6
--	---

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia
Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

WEBGUNEA: www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak
www.euskadi.eus/ingurumen-estatistikak
www.euskadi.eus/r41-ovse110x/eu/

Helbide elektronikoa: estadísticas-vivienda@euskadi.eus